



Hiri berritzailea eraiki, bertako biztanleei egoitza bat eskaintzen duena eta ongizatearekin eta naturarekin engaiatzen dena.



Diagnostiko batendako galderak:

Kanbok, Lapurdiko bihotzean erakargarri den herriak, bizi-esparru nabarmena du, baina atzerapen handia du egungo erronken aurrean:

Mugikortasun ezia: nun dira auzoen arteko lotura seguruak, bizikletentzako egokitzapenak, autoari buruz alternatibak?

Etxebizitza: nola lortu Kanboarrak duintasunez eta tokian bizitzea?

Trantsizio ekologikoa: nola egokitu gure lurraldea klimaren eta ingurumenaren erronkei buruz?

Laborantxa elikagarria: nola zaindu eta indartu lekuko laborantxa, izan dadin kalitatezkoa, iraunkorra eta eskuragarria?

Herriak salbuespeneko paisaia-kalitatea du, bereziki XX. mendekoa. Haren zaintzea beharrezkoa da, eta, aldi berean, erabilera eta ikuspegiak aldatzen ari diren biztanleriari egokitzea ere.



ONGIZATEA KANBON

Gure proposamenak:

KANBO HIRI BERDE GISA IZENDATU, OSAGARRIAREN ETA ONGIZATEAREN SINO-NIMO.

KIROL/OSAGARRI/NATURA POLITIKA BATERATUA HEDATU HERRI OSOAN : OSAGARRI-IBILBIDEEN BALORIZAZIOA (PASEOTIK IBILALDI ITZULIETARA).

HERRI MAILAKO IBILALDI-PLAN BAT SORTU. TOKIKO ELKARTEEKIN LANKIDETZAN (KMM).

BIZI-LEKU GARANTZITSUEN ANTOLAKETA PUBLIKO ETA.

PAISAJISTIKOA BERRIKUSTU :

- San Josep parkea : gela estaliaren erabilera zabaltzea, guinguette motako harrera-gune bat, piknik-eremu bat, baratze partekatuak...
- Fagalde plaza : berdegune bihurtzea eta Kanboko

begiratoki ederrena balioan jartzea, Fagaldea parkeari lotuz.

- Azantza parkea : etengabe idekia atxikitzea eta espazio kultural, sentsorial eta belaunaldiarteko bat sortzea.
- Labéguerie estadioa : harrera antolatzea eta gaur egun elgarren ondoan soilik diren ekipamenduen arteko lotura harmonizatzea.
- Larregaina eta Iguzkian urbanizazioak : jostatze gu-neak eta aisialdirako ekipamenduak sortzea.
- Kanbo Behereko lorategi publikoa : berriz balioan jartzea.
- Haurtzain : geltokiarekin oinezko lotura berrantolatzea.
- Edmond Rostand etorbidearen eredutik inspiratzea Kanboko etorbide handiak hobetzeko (Nafarroa karrika, Espainia karrika, Anne de Neubourg etorbidea, Currutchage etorbidea).

MUGIKORTASUN EGOKI ETA LASAIEN ALDE JO EGIN:

- LHerrri mailako egiazko bizikleta-plan baten abiatzea.
- Herrigunean autoaren lekua menperatzea, aparkaleku osagarri egokien antolaketaren bidez (bizilagunen kontzeptua barne), oinezkoei lehentasun osoa emaitako.
- Irisgarritasunaren aldetik antolamendu eredugarriak.
- Auzoak bide leunen bidez lotzea, garraio publikoak indartuz.

- Etorkizuneko geltokiari buruzko gogoeta (intermodalitate) eta Kanbo Beherearen eta Kanbo goiaren arteko lotura (eskailerak mekanikoak edo igogailua).

**Auzo guziak
kontuan hartzen
dituen hiria**

ETXE BIZITZA KANBON

GURE HIRIGINTZA MENPERATU, KANBOARREN BEHAR BEREZIEI ERANTZUTEKO, LABORANTXA ETA NATURA GUNEA ERRESPETATUZ, ETA HIRIAN NATURA INDARTUZ :

- Tokiko biztanleentzako beharrezko etxebizitzak sortu, Herri gidaritza pean :
 - Herriaren lurretan lehentasuna: Beaulieu, Tillac lursaila (Toki Ederren parean) eta Fagalde etxea.
 - Finantzaketa-eredu alternatiboak : egoitza erakarle izango herri egitura berezi baten sortzea, BRS araudi pean jabetza edo alokatze eskaintzak martxan ezarriz.
 - Auto-promozioan oinarritutako proiektu parte-hartzaileak.
 - VEFA salmenta, erreserbatutako lanekin (ELAN legea).
 - Bizitegi kooperatiba.

HERRIAREN HAZKUNDEA KONTROLATU, "HIRI-LOGELA" SINDROME SAIHESTEKO ETA BIGARREN ETXEBIZITZEN SORRERA GELDIARAZTEKO (THPAREN BERRIKUSPENA).

ALOKAIRUEN MUGAKETA AZTERTU.

HERRIAREN ETXEBIZITZA PARKE OSOA ETXEBIZITZA SOZIAL BIHURTU ETA BERE BABESTE ENERGETIKOA HOBETU.

ETXEBIZITZA PRIBATUAREN ZATI BAT KATEGORIA SOZIALEAN HITZARTZEN SUSTATU

Herri etxebizitza egitura erakarlea

NATURARI HURBIL EGOTEA

LABORANTZA ELIKAGARRIA BABESTU ETA GARATU.

ARNAGAKO LOREZAINEN JAKINTZA HERRI GUZIRA ZABALDU.

AUZOETAN ETA ETXALDEETAN BARATZE PARTEKATUAK SORTZEN LAGUNDU.

ONGI IZATE ETA BERE INGURUMENAREN ZERBITZURA DEN HIRIGINTZA BATEN HAUTUA EGIN:

- Uztaritze eta Itsasu arteko Errobi bazterreko bide segitzea errentu.
- Errobi ibaiari balioa eman : Haurtzaingo hondartzaren egokitzea, eta toki berean pasabide bat eraikitzea, behe eta gaineko Kanbo gehiago lotzeko.
- Ditugun eremu handiak zaindu (Gailurretako bidea, Elorrimendi, Paxkaleku, Mokorra, Marienia...).